



MUXIKAKO UDALA

ESTATUKO DIRU-LAGUNTZEN LABURPENA (307/2005 Errege Dekretua)

Eskaerak Estatuko ordezkarietara bidali behar dira. Dena den, udaletik kudeatzeko laguntza izango duzue.

Plaza Federico Moyua, 5
48071 Bilbao

• **Informazioa eta dokumentazioa:**

PROTECCION CIVIL: <http://www.proteccioncivil.es/ayudas/catastrofe-o-siniestro/normativa>
Muxikako Udala: <http://www.muxikakoudala.eus/>

○ **KALTE MATERIALAK JASO DITUZTEN FAMILIEI:**

➤ **laguntza jaso ahal izateko baldintzak:** (EPEA: HILABETE BAT – Otsailaren 10erarte)

- Kalteak ohiko etxebizitzan izatea
- Familia-unitatearen urteko sarrera garbia honakoak baino gutxiagoak izatea:

| FAMILIA KIDEAK | MUGA(+/-) |
|----------------|-------------|
| 1-2 | 26.093,20 € |
| 3-4 | 33.548,4 € |
| 5 edo gehiago | 41.003,6 € |

- Gainerako kalteordainak eta laguntzak kalteak betetzeko beste ez izatea.

➤ **Eskaera egiteko dokumentazioa:**

1. Eskaera (modelo goian azaltzen diren helbideetan dago)
2. Etxebizitzaren jabetasuna kreditatzen duen dokumentoa (erregistroko kopia sinplea adibidez)
3. Aseguruaren bitartez jasotako kalteordainaren agiria (kalteordaina izapidetzen ari bada, horren azalpena edo aseguruaren dokumentazioa)

○ **KALTE MATERIALAK JASO DITUZTEN JABE-KOMUNITATEAK:**

- **KALTEAK:** Jabeen-Komunitatean amankomunekoak diren lekuetan.

➤ **DOKUMENTAZIOA:**

1. Komunitatearen NIFa
2. Komunitatearen administradorearen idatzia presidentea nor den ziurtatuz.
3. Aseguru polizaren fotokopia.

➤ **INFORMAZIOA:**

Herrian dabilzan finka-administradoreei helaraziko diegu (gure web orrialdean ere jaso dezakezue)

○ **KALTE MATERIALAK JASO DITUZTEN MERKATARITZA EDO INDUSTRIA ESTABLEZIMENDUAK :**

Bereziki beraiei emango diegu dagokion informazioa eta dokumentazioa

Muxikan, 2018ko urtarrilaren 16an
ALKATEA





MUXIKAKO UDALA

BANDOA

EURI-JASA ETA UHOLDEAK JASAN ETA GEROKOAK

Herritar agurgarriok:

Muxikako udalerrriak eta herritarrok 2018ko urtarrilaren 11n sekulako euri-jasa eta uholdeak jasan behar izan genituen. Horren eraginez hainbat eta hainbat kalte material izan ditugu; alabaina, eskertzekoa da kalte pertsonalik egon ez izana.

... LEHENENGO ETA BEHIN, ESKERRIK ASKO

Alkate honek, udalaren eta herri osoaren partez, eskerrik zintzoenak eman nahi dizkie zapatu goizean alkatearen deialdiari men eginez, garbitze lanak burutzeko gerturatu ziren bolondresei; herritarrak zein kanpotarrak. Haien lan paregabeari esker, zenbait gune eta eraikin hondatuta egotetik ohiko itxura hartzera itzuli dira zen. MILA ESKER BIHOTZ-BIHOTZEZ.

... ETA ORAIN ZER... LAGUNTZAK

Jasandako kalteei aurre egiteko honako laguntzak eta kalteordainak eskatzeko aukera dago:

Kalteordain pribatuak

Bakoitzak bere aseguru-konpainiaren bitartez, Aseguru Konpentsazio Partzuergoan egingo du kalteordainaren eskaera.

Laguntza publikoak

Erakunde publikoen aldetik, aldiz, jadanik honako laguntza ildoak ireki dira:

- **MUXIKAKO UDALA:** Ahal bezainbat baliabide jarri ditu eskura; hala nola, kontenedoreak, garbitzeko-tresnak, moto-bonbak, makinaria berezia, giza-baliabideak eta bideetan izandako lur-jauziak egindako kalteak konpontzeko obra-kontratuak. Halaber, laguntzak jasotzeko informazioa eman eta ahal den neurrian laguntza eskaini.

Gainerakoan, hurrengo udalbatzan proposatuko da aurtengo Ondasunen gaineko Zergan, kaltetutako eraikinei dagokien kuota ordaintzeaz salbuestea.

- **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA:** Oraingoz, eskura dagoen laguntza bakarra udalei egokitzen zaiena da, ezohiko gertakariei aurre egiteko laguntza hain zuzen ere. Bestalde, baliabideak eta larrialdiko-lanak bete ditu: Etxeko jantokiko aparkalekua eta Zubieta-Errota aurrea garbitu, Kurtzeroko garaje nagusiä suhiltzaileek uraz libratu, errepide nagusietan izandako lur-jauziak erretiratu eta hondakinen kudeaketarekin lagundu.

EUSKO JAURLARITZA: Oraingoz ez dugu ziurtasunik laguntza ildorik abian jarriko duen edo ez. Horren harira, Muxikako Udalak Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Sailera bideratu du idatzia galdetzeko laguntzarik egokitu duten, eta hala ez bada, diru-laguntza berezia abian jartzea eskatzeko.

- **ESTATUKO ADMINISTRAZIOA:** 307/2005 Errege Dekretuak, hain zuzen ere Larrialdietarako eta Hondamenetarako diru-laguntzak arautzen dituenak, zenbait laguntza ildo ditu. **Eskaera indibidualki tramitatu behar da**, Udalak ezin du zuzenean tramitatu; dena den, behar izanez gero udaletik laguntza eskaintzen dugu eskaerak tramitatzeko.
 - o Kalte materialak jaso dituzten **familiei**
 - o Kalte materialak jaso dituzten **jabe-komunitateak**
 - o Kalte materialak jaso dituzten **merkataritza edo industria** establezimenduak